

NON?

Auzoko aparkaleku ezberdinetako plazak identifikatu dira, parkin handietako eskinetan kokatuta daudenak. Hauek izango dira ekintzarako kokalekuak.



ZER DA?

Aparkaleku plaza baten dimentsioa hartzen duen modulo bat diseinatu da. Elementu merke eta jasangarria izango da, behin behineko ekintza baita. Moduloa errepikakorra izango da eta auzotarrek faltan dutena eskainiko du: aterpea, biltegia, haurrentzako jolastokia, hiri altzariak, argiztapena, behin behineko postu komertziala... Bestalde, mugikorra izango da, honek, auzoko alde batetik bestera garraiatzea ahalbidetuko du.




ZERGATIK?

Etxebizitzetan gabeziak igerri badira ere, espazio publikoekiko apostua egin nahi da, biztanleen bizi kalitatea hobetzeko tresnatzat jotzen baita. Espazio publikoak gabezia horiek asetzeko ahalmena izango du, arazo eta ahultasun ezberdinei erantzun emanez.

NORENTZAT BIDERATUTA?

Esan bezela, aparkalekuek azalera handia hartzen dute etxebizitza ponpen barruan. Kotxeen garrantziak oinezkoaren presentzia mugatzen du. Proposatzen dena, oinezkoaren aldeko aldarrikapen urbanistikoa da. Auzo ponpak oinezkoen eremua bilakatuko dira. Horretarako, etxebizitzaren artean dauden aparkalekuak izango dira interbentzio puntuak.




NOLA?

Laburbilduz, egitura eta pieza zehatz batzuk dituen modulo bat eraikiko da eta aparkaleku plaza estrategikoetan errepikatuko da. Inguruko auzotarrek emango dioten erabilera aukeratu dute. Horren arabera moduloak leku bakoitzean behar den funtzioa burutuko du. Ekintza honek auzotarrek leku bakoitzean dituzten beharrak islatuko ditu... Gero, datu esanguratsu hauek behin betiko proiektuaren abiapuntua izango dira.

MODULO ESPERIMENTALA

Aparkalekuen neurrietan oinarrituta, espazio publikoaren sortzaile izango den modulo baten sorrera proposatzen da. Espazio publikoan auzoak dauzkan gabeziak erantzuna emango die, erabilera ezberdinetara moldatuz.

Otxarkoagako kaleek berrikuntzak eta aldatetak behar badituzte ere, proposatzen den esku hartzea behin behinekoa da, funtzionatzen duen ikusteko eta gerora inbertsio handiagoak egitea beharrezkoa izango ote den frogatzeko.



OTXARKOAGA

tokiko eragilea: HiririkAt

irakasleak: Koldo Telleria Andueza · Irati Otamendi Irizar
ikasgaia: Gune Irekien Antolakuntza eta Hiri Ekipamenduak

ikasleak: Laura Bravo Martinez · Irati Garcia Romera · Julene Larrea Fernández

proposamenak

MODULUAK

2 MODULO TIPO :

zerbitzuetara bideratutako modulo eta piezak

zaintzara bideratutako modulo eta piezak

LABUR-LABUR:

Moduloak, zaintza lanak errazteko eta faltan dauden zerbitzuak eskaintzen laguntzeko eratu dira. Prototipo bakoitzak, erabilera anitzeko pieza batzuk eukiko ditu, pieza horien erabilera ezberdinek, moduloaren izaera konkretua definitzeko balioko dute.

ERABILERA POSIBLEAK

Zerbitzu + zaintza moduloa:
Biltegi komunitarioa
Behin behineko kioskoa
Auzo baratza
Merenderoa
Egoteko gune estalia

Zaintza lanetarako moduloa:
Umeentzako jolas gunea
Atsedean toki estalia
Auzo baratza
Merenderoa

ERABILERA KATALOGOA

Gaur egun, Otxarkoagako behe oin komertzialak ez dituzte osasungarritasun estandarrak betetzen. Moduloarekin, behin behineko merkatuetarako espazioak eratu nahi dira; kiosko tenporalak egiteko eta enpresa berrieak eratzea errazteko.

Umeentzat bideratutako lekuak auzoan zehar sakabanatzeak, etxetik hurbil jolasteko espazioak egotea ondorioztatuko luke. Honek, umearen autonomia lantzeko baliagarria izango litzateke eta zaintza lanak erraztuko litzuke.

Piezak, altzari bezala erabilgarriak izateaz gain, irudimena garatzeko funtzionatu dezakete.

Nahiz eta moduloaren azalera mugatua izan, piezak mugikorrak izatea, zenbait kale zatiren apropiazioa ekar dezakeen, Otxarkoagan jolasteko eremu gehiago beharrezkoak direla frogatuz.

Auzoan zehar, hiri altzari falta somatu da. Piezen bitartez, mahaiak, esertzeko tokiak eta egoteko espazio estali berriak sakabanatu nahi dira. Gainera, pieza haueraz baliatuz, aisirako espazio berriak eratu nahi dira; auzo baratzak adibidez.

Auzotarrek egiten zituzten aldarrikapenen artean, etxebizitzetako biltegitratze espazioaren arazoa zegoen. Moduloarekin, biltegi komunitarioa eraman nahi da. Nahiz eta biltegi txikia izan, umeen aukitxoak, edo bizikletak gordetzeko balioko lukete.

GERORAKO EMAITZA POSIBLEA

Modulo esperimentalek, toki bakoitzean beharrezkoa den erabilera zein den zehazteko balio izango dute, auzotarrek piezei ematen dieten erabilerekin pistak emango litzuzkelako toki horren beharren inguruan. Behin toki konkretua eta premiazko erabilera topatzen denean, aurrekontu eta baliabide gehiagorekin, behin betiko esku hartzea egingo da. Interbentzio hau, auzotarrek moduloekin egindako frogetan oinarrituta eraikiko litzateke eta beraz, prozesu parte hartzaile aktibo baten emaitza izango litzateke.

